

GAZTE INFORMAZIORAKO ZERBITZUEI BURUZKO
NAZIOARTEKO XIII BATZARRA: “GARAI BERRIAK, INFORMAZIO
BERRIA”

ESPERIENTZIA FITXA

1. Identifikazio-datuak:

Esperientziaren titulua: **GIPUZKOANGAZTE.INFO BULEGO ETA GUNEEN WEBGUNEA**

XIII Batzarraren gaia:

(Jarri gurutze bat zure esperientzia jasotzen duen gaiari)

Aurkeztu diren esperentziak honako gai hauekin egon behar dute lotura:

Gazte berriak, informazio-eduki berriak. X

Sormena, gazteentzako informazioa zabaltzerakoan.

Web soziala: lan kooperatiboa. X

Salbuespenez, esperentziak gai horietako bat baino gehiago besarkatu ditzake

Gazte Informaziorako Zerbitzua: **GAZTEEN INFORMAZIO ETA DOKUMENTAZIOKO GIPUZKOAKO LURRALDE SAREA**

Entitatea: **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO HAUR, NERABE ETA GAZTEEN ZERBITZUA**

Harremanetarako pertsona: **IZASKUN ROPERO, AITZIBER LIZARRIBAR, AGURTZANE JUANENA**

Udalerria: **ANDOAIN, ARRASATE, ASTIGARRAGA, AZKOITIA, AZPEITIA, BERGARA, DONOSTIA, ELGOIBAR, ERRETERIA, HONDARRIBIA, IBAETA (UPV), IRUN, LASARTE, LEGAZPI, OIARTZUN, ORDIZIA, ZARAUZ**

Probintzia: **GIPUZKOAKO**

Esperientzia-egileak **LURRALDE ZENTROKO LAN-TALDEA**

Helbidea: **ANOETA, 28**

Posta kodea: **20014**

Tel: **943 472580**

Faxa: **943 473789**

Posta elektronikoa: alzarribar@gipuzkoa.net
amsalaberria@gipuzkoa.net

2. Ingurumaria, abiapuntua

Aurkeztuko dugun webgunea, duela bost urte garatutako aplikazio baten bilakaera da. Orduan, 2003. urtean, Gipuzkoako Gazteen Informazio eta Dokumentazioko Lurralde Zentroak buletin

elektronikoak kudeatu eta bidaltzeko aplikazio bat garatu zuen,. Gipuzkoako Gazte Informazioa bulego batzuekin batera. Garai hartan, astero gaztearentzat interesgarria zen informazioarekin (lana, ikastaroak, berriak...) buletin elektroniko bat bidaltzen zitzaien aurrez bulegoetan egindako harpidedunei.

Beste aldetik, buletinetan argitaratutako berriak Foru Aldundiaren Gazteria Zerbitzuaren webgunean ere argitaratzea erabaki zen, "gazte informazioa" atalaren azpian.

Bost urte eta gero, Gipuzkoako Gazte Informazioak bere webgunea izateko nahikoa garrantzia zuela eta bere helbidea izatea merezi zuela erabaki zen, gazteengana modu eraginkor eta zuzenez iritsi ahal izateko.

Honekin batera, Informazio eta Komunikazio Teknologia berrien aldatetara eta gazteen interesetara egokitu nahi izan dugu. Hau guztiaren ondorioz, 2007. urtean www.gipuzkoangazte.info web soziala sortu genuen. Gazte, bulego, gune eta Lurralde Zentroaren artean lan kooperatiboa eginaz elikatzen dugun webgune berria.

3. Esperientziaren deskribapena

Gure webgunea, www.gipuzkoangazte.info, erabat berria da, blog baten moduan garatu da. Gazteek ezaguna duten blogen eredu jarraitu da, informazioaren bilaketa erraztuz. Bloga oso eredu malgu da eta informazioa era azkar batean argitaratzeko erraztasunak ematen ditu. Alegia, erraza da egituratzen. Ez da berri/dokumentuen arteko bereizketarik egiten. "Artikuluak" argitaratzen dira, eta horiek berri puntualak edo dokumentu finkoak (txosten bat, loturak egiteko aukera, bideoak, adibidez) izan daitezke. Gazteek iruzkinak eginez erantzun ditzakete artikulu hauek, beren iritzi, zalantza edo bestelakoak azalduz. Hortaz, gazteen partaidetza ahalbidetu da. Haiek dira protagonistak. Beraien iruzkinen bidez eta gure ebaluazio sistemaren bidez, gazteen beharrak eta interesak antzemateko aukera eskaintzen digu eredu honek.

Bestalde, "Zure informazioa" izeneko atalaren bitartez, haientzat interesgarria den informazioa argitaratzeko aukera dute gazteek.

Informazioa wiki ereduaren bidez kudeatzen dugu, erabiltzaile talde baten kolaborazioaz. Hau da, lan kooperatiboaren bidez egiten da lana. Talde hau herrietako bulegoek, guneek eta Lurralde Zentroak osatzen dute. Une honetan 19 dira bere informazioa webgunean sartzen duten informazio zerbitzuak (denetara, 25 zerbitzu daude Gipuzkoan). Azpimarratzeko da, baita ere, eduki informatiboan zati bat Euskadiko Sarearen datu basetik ateratzen dela, une honetan eraberritze prozesuan dagoen K21tik.

Egun, herrietako 16 buletin elektronikoaren bidalketak, 2000 harpidedun baino gehiagori, webgune honetatik egiten dira. Buletin hauek webgunean landutako artikuluen aukeraketa bat eginez sortzen ditugu.

Azkenik, esan, informazioa euskaraz eta gaztelaniaz lantzen dugula eta gazteak bi hizkuntza hauetan irakurri dezakeela informazioa.

Helburuak:

1. Gaztearentzat interesgarria den informazioa biltzea, herriko informazioa nahiz Gipuzkoa osokoa eskainiz.
2. Gaztearentzat interesgarria den informazioa eskaini.
3. Gaztearen partaidetza ahalbidetu.
4. Gazteari informazio-bilaketan lagundu.
5. Herrietako gazte informatzaileei informatze-lanetan lagundu.
6. Teknologia berriak erabiliz (blog ereduak) gaztearekin harremanetan jarri.
7. Informatzaile lanetarako dokumentazio sistema baliagarria bilakatzeko.
8. Bisitariak kontsultatutako informazioaren jarraipenari esker gaztearen beharrak eta interesak antzematea ahalbidetu.
9. Webgunea Gipuzkoako Gazte Informazioaren ezaugarri bilakatu.

Estrategia, egitasmoaren garapena, metodologia:

Informatikari baten laguntzaz blog itxurako webgune bat sortzen hasi ginen, informatikari, aldundiko teknikari eta Lurralde Zentroko lan-taldearekin. Blog itxura nahi genuen baina informazioa banatzeko webgune batek eskaintzen zituen aukerekin batera. Azkenean, blog baten aukerak (iruzkinak egin ahal izatea) eta webgune batean informazioa sailkatzeko modua uztartu genituen.

Webgunean dagoen informazioa gaika eta herrika sailkatu genuen, gai bakoitzeko blog ezberdinak sortuz. Behin sailkapen hau egin ondoren, herrietako bulegoen iradokizunak jaso genituen eta webgunearen aurkezpena egin genuen. Ondoren, tresna berriaren gidaliburua egin genuen, herrietako bulegoei banatzeko.

Egutegia:

Webgunea egunero elikatzen da. Gaztearen iruzkinak egunero begiratu eta erantzuten dira.

Hasiera: 2003ko martxoan buletin elektronikoaren proiektuaren hasiera

Bukaera: 2007ko abenduan www.gipuzkoangazte.info web soziala aurkeztu zen

Jasotzaileak:

- 14 urtetik gorako nerabe eta gazteak
- Herrietako gazte informazio bulegoak.
- Gazte taldeekin harremanetan dauden erakundeak
- Gazte-taldeak
- Interesa duen edozein erabiltzaile

Lurralde-eremua:

Gipuzkoako gazteak

4. Ebaluazioa (tresnak eta adierazleak)

1.- Ebaluazioa egiteko erabiltzen dugun tresna Google-en Google Analytics sistema da. Tresna honen bitartez honako adierazleak lortzen ditugu:

- Webguneak jasotako bisita kopurua.
- Zeintzuk izan diren bisita gehien izan dituzten artikulak
- Gaikako zein blogek izan duen bisita gehien
- Zeintzuk diren erabiltzaile berriak eta zeintzuk errepikatzen dutenak
- Zein egunetan jaso dugun bisita gehien eta zein egunetan gutxien.

- **Emaidzak:**

- 2008ko urtarriletik 2008ko martxora bitarte **22.642** bisita izan ditu webguneak.

2.- Iruzkinak eta egindako kontsultak ere tresna bilakatzen dira ondorengo adierazleak lortzeko:

- Zeintzuk diren gaztearen intereseko gaiak.
- Zeintzuk diren gaztearen zalantzak eta iritziak.
- Zein den darabilten informazioa.

- **Emaidzak:**

- 2008ko urtarriletik 2008ko martxora bitartean iruzkinen bitartez egindako kontsultak 45 izan dira.

Esperientziaren balorazioa

5. Indarguneak

1. Herriko informazioa era sistematiko batean lantzeko aukera ematen duen tresna da.

2. Sarean, gaztearentzat informazio esanguratsua zabaltzen da, informazioaren hurbiltasunarengatik

3. Teknologia berrien ezagutza eta erabilpena bultzatzen du gazteen artean.

4. Talde-lana eta informatzaileen arteko lankidetzak bultzatzen da.

5. Blog ereduaren bitartez, informatzaile eta gaztearen artean informazioaren elkartrukea ahalbidetzen da.

6. Euskadiko Informazio eta Dokumentazioko Sareko datu baseko informazioaz baliatzen da.

6. Ahulguneak

1. Informazioa sartzeko orduan, blog ereduak dituen mugak

2. Informatzailearen partetik, egunero webgunea elikatzeak, denbora asko eskatzen du

3. Informazioa, batez ere, interneta erabiltzen duten gazteengana iristen da.

7. Etorkizunerako aurreikuspenak

Hedapen kanpainarik egin gabe, jada 8.000 erabiltzaile inguru ditugu hilabetero eta gazteak hasi dira beraien iritziak eta zalantzak argitaratzen. Aurrerantzean, ahaleginak egingo ditugu webgune hau Gipuzkoako gazteentzat erreferente bilakatzeko. Gipuzkoako Gazte Informazioaren ezaugarri izatea nahi dugu. Gazteek gu ezagutzea nahi dugu. Bestalde, hainbat ekintza sustatzeko lagungarri izango dela pentsatzen dugu. Hala nola, beste produktu edo kanpaina puntualak iragartzeko euskarri baliagarria izan nahi du.

8. Esperientziaren finantzaketa

Finantzabideak:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzua eta proiektuan parte hartzen duten herrietako udalak.

Giza-baliabideak eta baliabide materialak:

Informatika eta irudien tratamenduan ezagutza duen gazte informatzaileak.

Informazioaren kalitatea zainduko duen gainbegirale bat.

Internetera sartzeko aukera.

Esperientziaren kostua: (gutxi gorabeherakoa, besterik ez bada): 12000 euro, informatikariaren lana, 2003 urteko aplikazioa zaharberritzeagatik.

9.- Aurkezteko erabiliko diren euskarriak

Webgunearen aurkezpena Internet bitartez.

Paperean, webguneari buruz egunkarian argitaratutako gehigarri baten aurkezpena.